

auzoz auzo • auzoz auzo • auzoz auzo

herrera


Mozkor Fronteki-deak lagun taldeak antolatu duen gomazko palleta txapelketa dela eta, Herrerako frontoian primerako giroa nabari da azkenaldi honetan.

Txapelketaren bi mailatan bikote ugari bilduda. Orain arte final erdiak jokatu dira eta bertan garaile izan diren bikoteek gogor borrokatu behar izan dute finaletarako txartela. Katxini eta Cepasek Kupelas eta Txirrisklaren kontra jokaturako partidua oso lehiatua izan zen eta 30-28ko emaitza izan zuen.

Maiatzaren 4ean, larunbata, Cartujo eta Cepasek, Prost eta Txulo Perueneren aurka jokatu dute 2. mailan. Kupelas eta Txirrisklak berriz, Mutriku eta Mondongirekin izango dute norgehiagoka 3. postua lortzeko.

Odola emateko zita dugu hilaren 3an, auzoan. 18.30etatik-20.30etara Lagunbideko lokaletan, Gaiztarron, odol ematea egingo da. Oraindik odolik eman ez baduzu, zatoz eta parte har ezazu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Argozkia: Imanol Otegi

Eliza konpontzeko dirua behar da

Auzoko parrokiak dirua behar du elizaren hainbat konponketei ekiteko. **San Luis Gonzaga elizak 25 urte beteko ditu eta honako konponketak behar ditu: teilatua konpondu, argi instalazio berria, berogailu sare berria, sapaia, hormak margotu eta aurrealdea txukundu.** Diruz lagundu nahi duenarentzat Kutxako 004259852616 edo Banco Guipuzcoano-ko 004200665800666 kontu korranteak zabaldu dituzte. Lur Santura bi bidaia ere zozketatuko dira 5.000 pezetako txartelak erosiz gero.

altza

Alkohola eta tabakoaren publizitateari buruzko ihardunaldiak hasiko dira astelehenean, hilak 6, Kultur Etxean.

Lau egunez legez onartzen dituen drogez egiten den publizitateaz mintzatuko dira adituak. Gizartean droga hauen inguruan ematen diren kontraesanak aztertuko dira ihardunaldietan: alkoholak eta tabakoak gure gorputzean eragiten dituen kalteak eta era berean,

egiten den publizitatea. Bestalde, publizitate mota desberdinen azterketa egin nahi da: kanpainak, euskarriak, telebista, inprimaturako materialak...

Hilaren 6, 8, 13 eta 15ean bilduko dira parte hartzaileak 19.00etatik-21.00etara.

Garbera inguruan dagoen gurbitz handia birlandatzea eskatu dio Lau Haizeta auzo el-

karteak Udalari.

Garberako lur mugimenduek zuhaitz askoren bizitza arriskuan jarri dute, hori dela eta, gorosti eta gurbitz batzuk berriz landatzea komeni litzateke.

Bernabé Rodriguezen «Lau Haizeta parkeko natura» izeneko erakusketa izango dugu ikusgai maiatzaren 6tik 11ra Kultur Etxean arratsaldeko 17.30etatik-21.00etara.

anitz
Lorakenda
Madril hiribidea, 2 - Tfnoa.: 45 46 70

ELIZONDO — ● — Zerbitzu Ofiziala

● — Elektronika — ● **SONY eta THOMSON**

Ametzagaina, 70 • Tfnoa.: 27 70 33 • DONOSTIA